

Euskarazko Unibertsitate Liburuen Gordailua

2011/04/01

Euskarazko Unibertsitate Liburuen Gordailua, EIRE (Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkartea) eta Euskararen Etxearen arteko lankidetzari esker sortu da. Gordailu honetan, 1990tik gaur egun arte argitaratutako unibertsitate liburuak biltzen dira.

EIREren definizioaren arabera, “euskarazko unibertsitate liburua unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerkuntzan erabiltzen den argitalpena da, jatorriz euskaraz idatzi eta sortua, edo beste hizkuntza batetik euskarara itzulia”. Hori eskuetan, Batzorde Zientifiko batek onetsiko ditu gordailuan egongo diren liburuak.

